

Urnietuko Udala*Syuzkoa**Ayuntamiento de Urnieta*

**2006KO MAIATZAREN 18KO UDALBATZARRAREN AKTA
ACTA DEL PLENO DEL 18 DE MAYO DE 2006**

Akta zenbakia: 6/2006**Bilera data:** 2006-05-18**Bilera mota:** Ez ohiko osoko bilkura**Deialdia:** Lehenengoa**Ordua:** 13.00 – 13:30**Tokia:** Udaletxeko areto nagusia**Acta nº:** 6/2006**Fecha:** 18-05-2006**Tipo de reunión:** Pleno extraordinario**Convocatoria:** Primera**Hora:** 13:00 – 13:30**Lugar:** Salón de plenos del Ayuntamiento**Bertaratutakoak:****Alkatea:** Florentino Ugalde Atxaga**Reunidos:****Alcalde:** Florentino Ugalde Atxaga**Zinegotziak:**

María Isabel Vaquero Montero

Jose Luis Aramendi Goikoetxea

Jose Maria Aldanondo Ugalde

Maria Angeles Iriondo Mugica

Gaspar Esnaola Agesta

Hermenegildo Gonzalez Moran

Consuelo Frutos González

Jose Guirado Novo

Juan Maria Tomasena Alzuri

M. Asuncion Guerra Alonso

Concejales:

María Isabel Vaquero Montero

José Luis Aramendi Goikoetxea

José Maria Aldanondo Ugalde

Maria Ángeles Iriondo Múgica

Gaspar Esnaola Agesta

Hermenegildo González Morán

Consuelo Frutos González

José Guirado Novo

Juan Maria Tomasena Alzuri

M^a Asunción Guerra Alonso**Ezin etorria adierazi dute:**

M. Teresa Pagazaurtundua Ruiz

Jose Maria Mugica Heras

Ausentes, que se han excusado:M^a Teresa Pagazaurtundua Ruiz

José María Múgica Heras

Jarduneko idazkaria:

Aitziber Zurutuza Arza

Secretaria accidental:

Aitziber Zurutuza Arza

Aztergaiak:

1.- Kreditu aldaketak.

Orden del día:

1.- Modificaciones de Crédito.



2006KO MAIATZAREN 18KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 18 DE MAYO DE 2006

1.- Kreditu aldaketak.

Alkateak azaldu duenez, indarrean dagoen 2004ko aurrekontua motz geratzen ari da; diru sarrerak badira, baina gastuak ere sortu dira; hori dela eta, kreditu aldaketa sorta bat prestatu da, Udalaren funtzionamendua bermatzeko. Aldaketa horien berri eman zen Ogasuneko Informazio Batzordean, eta alderdi sozialistak adierazi zuen bi puntutan ez zegoela ados:

- “Kanpo aholkularitza” deritzan Kulturrietaren kontu-sail batekin (32.000 eurokoa) eta *Berritu* aldizkariari dagokionarekin (35.000 eurokoa).
- Bestalde, kaleko garbitasunari dagokion kontu-sailean egindako 15.000 euroko igoera horrekin ere ez daude ados.

Alkateak PSE-EEko Hermenegildo Gonzalez jaunari eman dio hitza, eta honek adierazi du kaleko garbitasunari dagokion kontu-saila igotzearen aurka daudela, gaur egun ematen duten zerbitzua oso kaskarra delako, eta saritu beharrean diru-zigorak ezarri beharko zitzaizkiela deritzo.

Kulturrietari dagokionez, ez da zehatza bi kontu-sail horietatik diru kopuru horiek kendu nahi zituztela esatea. Talde sozialistak aurrekontuen kontra bozkatu zuen, beste arrazoiren batzuen artean Kulturrieta SAri zegokion kontu-sailagatik. Kreditu aldaketa honek eskema berari jarraitzen dioenez, ez daude ados.

Azkenik, Hermenegildo Gonzalezek galdetu du ea nola bozkatuko duten. Batzarkideak jakinaren ganean jarri ditu puntu hauek beste guztiekin batera bozkatzen badituzte beraiek aurka bozkatuko dutela.

1.- Modificaciones de crédito.

Según ha explicado el alcalde, el presupuesto de 2004 que actualmente está en vigor es insuficiente; y es que cuentan con varios ingresos económicos pero también se han originado gastos; por ello, se ha elaborado una serie de modificaciones de crédito a fin de garantizar el funcionamiento del Ayuntamiento. En la Comisión Informativa de Hacienda ya se dio cuenta de esas modificaciones, y el grupo socialista manifestó su desacuerdo con respecto a dos puntos:

- La partida de Kulturrieta denominada “Asesoría externa”, de 32.000 euros, y la partida correspondiente a la revista *Berritu*, de 35.000 euros.
- Tampoco están de acuerdo con el incremento de 15.000 euros de la partida de limpieza viaria.

El alcalde ha cedido la palabra al concejal del grupo PSE-EE Hermenegildo Gonzalez. Este último ha señalado que están en contra del incremento de la partida correspondiente a la limpieza viaria porque el servicio que se presta actualmente es bastante mediocre, y considera que en lugar de premiarlo deberían sancionarlo.

Con respecto a Kulturrieta, no es exacto decir que quieren eliminar esas cantidades de las dos partidas señaladas. El grupo socialista votó en contra de los presupuestos, entre otras razones por la partida correspondiente a Kulturrieta SA, y teniendo en cuenta que esta modificación de crédito sigue el mismo esquema, no están de acuerdo.

Por último, Hermenegildo González ha preguntado sobre el modo en que se efectuará la votación. Ha explicado a los miembros de la comisión que si esos dos puntos se votan junto con los demás ellos votarán en contra.

Urnietako Udala*Sipuzkoa**Ayuntamiento de Urnieta*

2006KO MAIATZAREN 18KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 18 DE MAYO DE 2006

Ondoren, EBko Juan Mari Tomasena hitza hartu du eta adierazi du bere taldea ez dagoela ados aurreko urteetan onartutako aurrekontuko hainbat kontu-sailekin, baina zalantzak ditu, Udalak konpromisoa hartu ondoren kontu-sail horiek desagerraraz daitezkeen edo ez.

Bestalde, Juan Mari Tomasena adierazi du lorategien garbiketan akats larriak nabarmenak daudela; bideen garbiketan, berriz, erabilitako bitartekoak handitu direla eta lana txukun egiten ari direla esan du.

Ondoren, alkateak adierazi du zenbait puntu argitu nahi dituela:

Lehenengo, kontu-hartzailearen adierazpenak entzuteko beharra adierazi du, bere esanek talde bakoitzaren iritzia argituko dutelakoan. Ondoren erabakiko dute nola bozkatu.

Bigarrenik, alkateak adierazi du beharrezkoa dela Juan Mari Tomasena adierazitako bereizketa egitea. Egia da lorategietako garbiketa ez dela behar bezala egiten, eta jakinarazi nahi du horrexegatik bilera izan zutela atzo enpresako arduradunekin. Bilera horretan, hilaren 31 arteko epea eman zitzaion egoera nabarmen aldatzeko, eta adierazi zitzaion bestela kontratua ezeztatzeko neurriak hartuko zituztela.

Azkenik, Aitziber Zurutuza kontu-hartzaile eta jarduneko idazkariari hitza eman dio hitza, eta honek Kulturietaren ekarpenaren igoeraren arrazoiak azaldu ditu: soldaten %4,6ko igoera, KPIren igoera, musika eskolako orduen igoera, gaztelekuko gastuak, e.a. Bestalde azaldu du Informazio Gunean pertsona bat dagoela eta horrek soldatetan igoera ekarri duela; horrez gain, aurten begiraleak ere nominan egongo direla esan du eta, beraz, argi utzi du gastu

A continuación, ha tomado la palabra el concejal de IU Juan M^a Tomasena para señalar que su grupo no está de acuerdo con varias partidas presupuestarias aprobadas en años anteriores pero que tiene dudas de si esas partidas pueden eliminarse después de que el Ayuntamiento haya adoptado su compromiso.

Por otra parte, Juan M^a Tomasena ha señalado que en la limpieza de jardines hay unas faltas muy graves; sin embargo, ha añadido que en la limpieza viaria se han aumentado los recursos utilizados y que se está haciendo un buen trabajo.

A continuación, el alcalde ha señalado que desea aclarar varios puntos:

En primer lugar, ha destacado la necesidad de atender a las declaraciones de la interventora, puesto que sus explicaciones aclararán las opiniones de cada grupo. A continuación decidirán el modo de proceder en la votación.

En segundo lugar, el alcalde ha señalado la necesidad de diferenciar los dos servicios, tal y como ha hecho Juan M^a Tomasena. Es cierto que la limpieza de jardines no se realiza debidamente, y por ese motivo, ayer mantuvieron una reunión con los responsables de la empresa, donde se les dio plazo hasta el 31 de este mes para mejorar notablemente el servicio, señalando que de lo contrario se tomarían las medidas oportunas para anular el contrato.

Por último, el alcalde ha dado la palabra a la interventora y secretaria accidental Aitziber Zurutuza para que explique los motivos del incremento de la aportación a Kulturietan: el incremento del 4,6% de los salarios, el incremento del IPC, el aumento de las horas de clase de la Escuela de Música, los gastos del gazteleku, etc. Por otra parte, ha explicado que se ha contratado una persona para el Punto de Información y que ello ha supuesto un



2006KO MAIATZAREN 18KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 18 DE MAYO DE 2006

gehigarria izango dela.

incremento en los salarios; además, este año los monitores estarán en nómina, de modo que ello también origina un gasto adicional.

Alkateak hitza hartu du, eta adierazi du ez dagoela ados Kulturrietaren kanpo aholkularitza edo *Berritu* aldizkariako zenbatekoak bertan behera uztearekin. Azken batean planteatu dituzten aldaketak Udalaren jarduerak berak dakartzan gastuei aurre egiteko dira. Ondoren, EAJ-EA taldeko M. Isabel Vaquerori eman dio hitza.

Ha tomado la palabra el alcalde para señalar que no está de acuerdo con eliminar las partidas para la asesoría externa de Kulturrieta y para la revista *Berritu*. Y es que al fin y al cabo las modificaciones planteadas son necesarias para afrontar los gastos que origina la propia actividad del Ayuntamiento. A continuación, ha cedido la palabra a la concejala del grupo PNV-EA M^a Isabel Vaquero.

M. Isabel Vaquerok argitu nahi izan du Kulturrietako kontuak bideratzeko behar-beharrezkoa dela aholkularitza talde bat kontratatzea, horren ardura duen pertsona baja egoeran baitago.

M^a Isabel Vaquero ha aclarado que para gestionar las cuentas de Kulturrieta es necesario contratar una asesoría, puesto que la persona encargada de esa labor está de baja.

Maria Asuncion Guerra PPko zinegotziak adierazi du *Berritu* aldizkariaren kontu-sailarekin ados ez dauden arren ez dutela horregatik kreditu aldaketa guztien aurka bozkatuko. Nahiago luke ordea, talde sozialistak eskatzen duen bezala, bozkatzea zatika egitea.


La concejala del PP M^a Asunción Guerra ha señalado que aunque su grupo no está de acuerdo con la partida de la revista *Berritu* no por ello votarán en contra de todas las modificaciones de crédito. No obstante, ha señalado que tal y como ha solicitado el grupo socialista ella también preferiría que la votación se efectuara por partes.

Ondorioz, alkateak bozketa zatika egitea proposatu du, lehendabizi zerrenda osoa, eta ondoren kale garbiketaren kontratuari buruzkoa eta azkenik, Kulturrieta SARako ekarpenari buruzkoa.

Por tanto, el alcalde ha propuesto que la votación se realice por partes; en primer lugar, se votará toda la relación de partidas, a continuación la partida correspondiente al contrato de limpieza viaria, y por último la partida correspondiente a la aportación de Kulturrieta.

Maria Isabel Vaquero EAJ-EAko zinegotziak *Berritu* aldizkariari buruz argitu nahi izan du ez dagoela hori bakarrik kontu-sail horretan. Bertan hainbat komunikazio ekintza daudela esan du, kartelak, irrati programak, iragarkiak...

La concejala del PNV-EA M^a Isabel Vaquero ha querido aclarar que la partida de la revista *Berritu* no es exclusiva de la revista, sino que consta de más actos comunicativos, como carteles, programas de radio, anuncios...

Urnietako Udala*Squuzhou**Ayuntamiento de Urnieta*

2006KO MAIATZAREN 18KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 18 DE MAYO DE 2006

Eztabaidatu ondoren, alkateak proposatu du Kulturnieta Sarentzako ekarpenari eta kale garbiketaren kontratuari buruzko kontu-sailak kanpo uztea eta proposatutako beste guztiak bozkatzea; honako emaitza hau izan du:

Alde: 11 (6 EAJ-EA, 3 PSE-EE, 1 PP, 1 EB).
Kontra: 0.
Abstentzioak: 0.

Ikusirik 2006ko maiatzaren 12an egindako Ogasun informazio batzordean honetaz hitz egin zela eta informazioa eman zela.

Gaia bozkatu ondoren, Udalbatzak gehiengo absolutua osatzen duten kideen aldeko botoarekin hartu du honako

Tras el debate, el alcalde ha propuesto someter a votación todas las partidas presupuestarias propuestas excepto las partidas correspondientes a la aportación de Kulturnieta y el contrato de limpieza viaria. El resultado obtenido ha sido el siguiente:

A favor: 11 (6 PNV-EA, 3 PSE-EE, 1 PP, 1 IU)
En contra: 0.
Abstenciones: 0.

Visto que en la Comisión Informativa de Hacienda celebrada el 12 de mayo de 2006 se trató e informó sobre este punto.

Tras la votación, el Pleno, con el voto a favor de los miembros que conforman la mayoría absoluta de la Corporación, ha adoptado el siguiente

AKORDIOA

Lehenengoa.- Ondorengo gastu eta kreditu aldaketak onartzea.

ACUERDO

Primero.- Aprobar los siguientes gastos y modificaciones de crédito.

Sarreraren kontzeptuak edota gastuen kontu-sailak Conceptos de Ingresos y/o partidas de Gastos	Sarrera gehikuntza Mayores Ingresos	Sarrera gehikuntza edota gastu gutxitzea Mayores Ingresos y/o Bajas en Gastos
2.0200.420.000.00.01	Foru funtsa Fondo Foral	223.024
2.0300.310.000.00.09	Ur hornidura Suministro de Agua	201.002
GUZTIRA GASTU GEHIKUNTZA		424.026
TOTAL IGUAL A LOS INCREMENTOS DE GASTOS		



2006KO MAIATZAREN 18KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 18 DE MAYO DE 2006


Aurrekontuko Kontu-saila Partida Presupuestaria	Kontzeptua Concepto	Kredituak Créditos		
		Egunoak Actuales	Aldaketak Modificaciones	Behin betikoak Definitivos
1.0100.131.121.00.00	Aldi baterako langileen ordains. Retrib. Personal Eventual	0	100.000	100.000
1.0100.121.121.01.00	Retrib. Com. Func.	44.867	42.000	86.867
1.0300.221.441.10.01	Argindarraren homidura Energia Electrica	17.000	8.000	25.000
1.0300.221.441.10.02	Ur-homidura Suministro de agua	407.000	53.000	460.000
1.0300.227.442.20.01	San Markos Mankomunikateari ekarpena Aportación Mancomunidad	38.717	10.800	49.517
1.0300.221.432.00.03	Gas hornidura Gas Edificio Municipal	3.800	13.200	17.000
1.0600.481.313.20.00	Gizarte larria dietarako laguntzak Ayuda Emergencia Social	62.500	15.000	77.500
1.0600.481.313.50.07	Diru laguntza: garatzeko bidean daude herriak Subven. a Paises en Vias de Des.	32.500	5.700	38.200
1.0600.481.313.90.02	Diru laguntza tasak Subvenciones Agua	0	3.000	3.000
1.0100.931.010.00.03	Maileguaren amortizazioa Amortiz. Préstamo	21.000	76.000	97.000
GUZTIRA		1.971.863	424.026	2.395.889

Bigarrena.- Hasierako onespena duen espedientea informazio publikorako argitaratzea, 15 lanegunetan, GAOn agertuko den iragarki baten bidez, interesdunek aztertu eta udalbatzarrari erreklamazioak aurkezteko aukera izan dezaten.

Segundo.- Publicar a través de un anuncio insertado en el BOG el expediente aprobado inicialmente durante 15 días hábiles para información pública, a fin de que los interesados puedan examinarlo y puedan presentar al Pleno las reclamaciones que estimen oportunas.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, akordio

En caso de que no se presenten

Urnietuko Udala*Ayuntamiento de Urnieta**Sipuzken*

2006KO MAIATZAREN 18KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 18 DE MAYO DE 2006

hau behin betikotzat joko da.

reclamaciones, este acuerdo devendrá definitivo.

Ondoren, alkateak kale garbiketaren kontratua bozkatzea proposatu du, eta honako emaitza izan du:

Después el alcalde ha propuesto someter a votación el contrato de limpieza viaria. El resultado ha sido el siguiente:

Alde: 8 (6 EAJ-EA, 1 PP, 1 EB).
Kontra: 3 (PSE-EE).
Abstentzioak: 0.

A favor: 8 (6 PNV-EA, 1 PP, 1 IU).
En contra: 3 (PSE-EE).
Abstenciones: 0.

Ikusirik 2006ko maiatzaren 12an egindako Ogasun informazio batzordean gai honetaz hitz egin zela eta informazioa eman zela.

Visto que en la Comisión Informativa de Hacienda celebrada el 12 de mayo de 2006 se trató e informó sobre este tema.

Gaia bozkatu ondoren, Udaltzarak gehiengo absolutua osatzen duten kideen aldeko botoarekin hartu du honako

Tras la votación, el Pleno, con el voto a favor de los miembros que conforman la mayoría absoluta de la Corporación, ha adoptado el siguiente

AKORDIOA

ACUERDO

Lehenengoa.- Gastu eta kreditu aldaketa hauek onartzea.

Primero.- Aprobar los siguientes gastos y modificaciones de crédito.

Aurrekontuko kontu-saila	Kontzeptua Concepto	Kredituak		
		Créditos		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
Partida Presupuestaria		Actuales	Modificaciones	Definitivos
1.0300.227.442.10.01	Kontratua: kale garbiketa Contrato de Limpieza Viaria	305.000	15.000	320.000

Bigarrena.- Hasierako onespina duen espedientea informazio publikorako argitaratzea, 15 lanegunetan, GAO n agertuko den iragarki baten bidez, interesdunek aztertu eta udalbatzarrari erreklamazioak aurkezteko aukera izan dezaten.

Segundo.- Publicar a través de un anuncio insertado en el BOG el expediente aprobado inicialmente durante 15 días hábiles para información pública, a fin de que los interesados puedan examinarlo y puedan presentar al Pleno las reclamaciones que estimen oportunas.



2006KO MAIATZAREN 18KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 18 DE MAYO DE 2006

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, akordio hau bchin betikotzat joko da.

En caso de que no se presenten reclamaciones, este acuerdo devendrá definitivo.

Azkenik, alkateak Kulturrietako ekarpena bozkatzea proposatu du, eta honako emaitza hau izan du:

Por último, el alcalde ha propuesto someter a votación la aportación de Kulturrieta. El resultado ha sido el siguiente:

Alde: 6 (6 EAJ-EA).
Kontra: 3 (PSE-EE).
Abstentzioak: 2 (1 PP, 1 EB).

A favor: 6 (6 PNV-EA).
En contra: 3 (PSE-EE).
Abstenciones: 2 (1 PP, 1 IU).

Ikusirik 2006ko maiatzaren 12an egindako Ogasun informazio batzordean gai honetan hitz egin zela eta informazioa eman zela.

Visto que en la Comisión Informativa de Hacienda celebrada el 12 de mayo de 2006 se trató e informó sobre este tema.

Gaia bozkatu ondoren, korporazioaren gehiengo sinplea osatzen duten udalkideen aldeko botoaz, udalbatzarrak hartu du ondorengo

Tras la votación, el Pleno, con el voto a favor de los miembros que conforman la mayoría simple de la Corporación, ha adoptado el siguiente

AKORDIOA

ACUERDO


Lehenengoa.- Gastu eta kreditu aldaketa hauek onartzea.

Primero.- Aprobar los siguientes gastos y modificaciones de crédito.

Aurrekontuko Kontu-saila	Kontzeptua Concepto	Kredituak Créditos		
		Egungoak Actuales	Aldaketak Modificaciones	Behin betikoak Definitivos
1.0400.433.451.10.01	Kulturrieta SARako ekarpena Aportación Kulturrieta	1.039.479	82.326	1.121.805

Bigarrena.- Hasierako onespena duen

Segundo.- Publicar a través de un anuncio

Urnietako Udala*Sipuzkoa**Ayuntamiento de Urnieta*

2006KO MAIATZAREN 18KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 18 DE MAYO DE 2006

espedientea informazio publikorako argitaratzea, 15 lanegunetan, GAOn agertuko den iragarki baten bidez, interesdunek aztertu eta udalbatzarrari erreklamazioak aurkezteko aukera izan dezaten.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, akordio hau behin betikotzat joko da.

Azkenik, eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak bukatutzat eman du ohiz kanpoko udalbatzar hau, goian adierazitako egunean, arratsaldeko bostetan, eta nik, Urnietako jarduneko idazkariak, hala egiaztatu dut, alkatearen oniritziarekin.

insertado en el BOG el expediente aprobado inicialmente durante 15 días hábiles para información pública, a fin de que los interesados puedan examinarlo y puedan presentar al Pleno las reclamaciones que estimen oportunas.

En caso de que no se presenten reclamaciones, este acuerdo devendrá definitivo.

Finalmente, no habiendo más asuntos que tratar, el alcalde da por finalizado el presente pleno extraordinario, siendo las cinco del día indicado en el encabezamiento, se levanta la sesión, de la que yo, la secretaria accidental de Urnieta, certifico con la aprobación del Alcalde.

Stua.: Aitziber Zurutuza Arza
Jarduneko Idazkaria.



Stua.: Florentino Ugalde Atxaga
Alkate-lehendakaria.

